

"Gonbidatu Lagun Bat Plana – Boost" promozioaren lege-oinarriak

PROMOZIOAREN BALDINTZAK

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. merkataritza-erakundeak, zeinak egoitza soziala San Nikolas plaza, 4, Bilbo helbidean eta A48265169 zenbakiko IFKa duen (aurrerantzean, "BBVA"), Promozio hau antolatu du, "Gonbidatu Lagun Bat Plana - Extra Boost" deiturikoa (aurrerantzean "Promozioa"), lege-oinarri hauen bidez arautua (aurrerantzean, "Lege-oinarriak").

1. Zertan datza promozio hau?

Promozio honek hauxe bultzatu nahi du:

- BBVAren bezero batek (aurrerantzean, "BBVA Aitabitxia") promozio-kode pertsonalizatuak bidaltzea beste pertsona batzuk (aurrerantzean, "BBVA Besoetakoa") BBVAren bezero egin eta txartelarekin 15,00 € edo gehiagoko erosketa bat egin dezaten.
- Eta BBVAren bezeroek ("BBVA Besoetakoa") alta ematea, dela aurrez aurre BBVAko bulegoetan, dela bbva.es webgunearen, m.bbva.es sarearen edo BBVAren aplikazio mugikorraren (Android eta iOS sistema eragileak) bidez, horretarako BBVAren beste bezero batek, hots, "BBVA Aitabitxiak", emandako promozio-kode pertsonalizatua erabiliz eta bere txartelarekin 15,00 €-ko edo gehiagoko erosketa bat eginda. Promozio-kode pertsonalizatu hori, gehienez, hamar (10) erabiltzailek erabili ahalko dute, 6. klausulan azaltzen den moduan.

Promozioaren baldintzak betez:

- "BBVA Aitabitxi" gisa, beste pertsona batzuk gonbidatuz BBVAren bezero bezala alta ematera eta txartelarekin 15,00 €-ko edo gehiagoko erosketa bat egitera, 35,00 €-ko zenbateko garbiaren hoberia jasoko duzu zeure kontuan;
- "BBVA Besoetako" gisa bezeroaren alta prozesua bete eta bere txartelarekin 15,00 €-ko edo gehiagoko erosketa bat egiteagatik, beste 15,00 € garbiren hoberia jasoko du bere kontuan.

2. Norentzat da promozioa?

Promozioa hori hastean 18 urte baino gehiago dituzten pertsona fisikoentzat da, baldin Espainiako egoiliarrak izan eta BBVAren 1. klausulan azaldutako bidea erabilita alta eman badute.

Lege-oinarri hauek bi partaide mota ezberdinen parte-hartzea arautzen dute promozioan: "BBVA Aitabitxia" eta "BBVA Besoetakoa".

3. Nork ezin du hartu parte promozioan?

"BBVA Aitabitxia" gisa promozio honetan parte hartzetik kanpo geratuko zara horren antolaketan parte hartu izan baduzu edo BBVAren edo bere Taldeko enpresen langile aktiboa edo horietan erretreta aurrez hartutakoa baldin bazara.

Halaber, nahiz eta lege-oinarri hauetan adierazitako baldintzak bete, ezingo duzu "BBVA Aitabitxi" gisa promozioan parte hartu indarraldian eta hoberia eman arte BBVArekin iraugita eta galdagarria den zor bat baduzu. Kasu horretan, hoberia jaso aurretik erregularizatu beharko duzu egoera. Hoberia sartzeko eguna iritsita zorra oraindik ez baduzu erregularizatu, hoberia jasotzeko eskubidea galduko duzu, eta ez zaizu sartuko kontuan.

4. Zenbat irauten du promozioak?

Sustapenean parte hartzeko epea 2022ko abenduaren 11n hasiko da, 00:00etan (Espainiako penintsulako ordua), eta 2023ko apirilaren 3an amaituko da, 23:59ean (Espainiako penintsulako ordua), bi egun horiek barne (aurrerantzean, "indarraldia").

5. Zer urrats egin behar dituzu promozioan BBVA Aitabitxi gisa parte hartzeko?

Promozio honetan "BBVA Aitabitxia" gisa parte hartzeko, hurrengo baldintza guztiak bete behar dituzu:

- BBVAko bezero izatea;
- promozioa hasi eta aurreko sei (6) hilabeteetan BBVAren bezero gisa baja ez ematea;
- BBVA multikanal kontratua sinatuta eduki;
- bbva.es webguneko bezeroentzako zure gune pribatuan sartu (webgunetik edo mugikorreko aplikazioaren bidez);
- Promozioa kokatuta den gure pribatuko "Gonbidatu lagun bat" atalera sartzea, sinatu eta zure kode pertsonalizatua sortuko duena;
- promozioaren lege-oinarri hauek onartu eta sinatu;
- promozioan "BBVA Aitabitxia" gisa sinatuta sortzen den promozio-kode pertsonalizatua kopia eta gorde;
- promozioaren kode pertsonalizatua BBVAren bezero izateko interesa duten zure lagunekin partekatzea, uneoro betez promozioaren kode pertsonalizatua jakinarazteko bitartekoei aplikagarriak zaizkien zehaztapen eta baldintzak, betiere promozio-kode pertsonalizatu hori gehienez ezarritako "erabilera" kopuruaren barruan baldin bada, 6. klausulan azaltzen den moduan. "BBVA Aitabitxi" gisa arduraz jokatu behar duzu, promozioaren kode pertsonalizatua soilik BBVAren bezero izateko interesaturik leudekeen lagunengan partekatuz. Promozioa automatikoki bertan behera uzteko arrazoia izango da, promozioan parte hartzeko lege-oinarri hauetan ezarritako beste edozein baldintza haustearen kalterik gabe, promozio-kode pertsonalizatua era masiboan eta iruzurrez bidaltzea eta taldeko spam bat sortzea BBVAren bezero izateko interesaturik leudekeen zure lagunengandik kanpo, 12. eta 16. klausuletan azaltzen den moduan. Era berean, ezin izango duzu mezua masiboak bidaltzeko tresnarik erabili ezta ere promozio-kode pertsonalizatua beste norbaiten izenean bidali, "BBVA Aitabitxia" ez bada.
- Gainera, "BBVA Aitabitxi" gisa lege-oinarri hauetan zehazten den saria jaso ahal izateko, arestian azaldutako betekizunak betetzeaz gain "BBVA Besoetakoa" batek ere honako hauek bete beharko du:
 - (i) Kontu bat eta txartel bat kontratatzea zure "BBVA Aitabitxi" gisa sortu eta partekatu diozun promozio-kode pertsonalizatuarekin, betiere promozio-kode pertsonalizatua gehienez ezarritako "erabilera" kopuruaren barruan baldin bada, 6. klausulan azaltzen den moduan;
 - (ii) Hurrengo 7. klausulan adierazitako parte-hartze baldintzak betetzea;
 - (iii) Lege-oinarrietan aurreikusten den beste edozein betebeharrak betetzea.

6. Zein da zure promozio-kode pertsonalizatua "BBVA Aitabitxi" gisa?

Sinatutako lege-oinarri hauen arabera promozio hau kontratatu eta sinatzen duzunean, promozio-kode pertsonalizatu bat sortuko duzu "BBVA Aitabitxia" gisa:

- Promozio-kode pertsonalizatua:

promozio-kode pertsonalizatu horrek 10 erabilera muga izango du, eta "erabilera" gisa ulertzen da promozioarekin bat egitean kideek kode honetako "BBVA Besoetakoa" gisa egiten dutena. Gehieneko erabilera kopurua lortu ondoren, BBVAk desgaitu egingo du promozio-kode pertsonalizatu hori, eta ezin izango da erabili promozio honi atxikitako bezeroen alta emateko prozesu berrietan.

Promozio-kode pertsonalizatu horrek hamar (10) erabilera muga izango du, eta "erabilera" gisa ulertzen da promozioarekin bat egitean kideek kode honetako "BBVA Besoetakoa" gisa egiten dutena. Gehieneko erabilera kopurua lortu ondoren, BBVAk desgaitu egingo du promozio-kode pertsonalizatu hori, eta ezin izango da erabili promozio honi atxikitako bezeroen alta emateko prozesu berrietan.

7. Zer urrats eman behar dituzte "BBVA Besoetako" diren zure lagunek promozioan parte hartu ahal izateko?

Zure lagunek "BBVA Besoetako" gisa promozioan parte hartu ahal izateko, urrats hauei jarraitu behar diete:

- BBVAko bezero ez izatea;
- promozioa hasi eta aurreko sei (6) hilabeteetan BBVAko bezero gisa erregistrotik ez kendu;
- promozioaren "Indarraldia" aldian lege-oinarri onartu, eta;
 - bezeroak erregistratzeko "Promozio-kodea" eremuaren berri izatea eta baliozkotzen dela egiaztatzea; hots, "BBVA Aitabitxia" erabiltzaile batek promozio-kode pertsonalizatu bat sortu eta harekin partekatzea;
 - BBVAn alta hartzea kontu bat (aurrerantzean, "BBVA kontua") eta Aqua zordunketa/kreditu txartela (aurrerantzean, "Txartela") kontratatuta. Zure "BBVA Besoetako" lagunek bulego batetik ez, baina bbva.es, m.bbva.es edo BBVAren mugikorretarako aplikaziotik (iOS eta Android sistemak) bezero berri gisa erregistratzeko prozesua burutzen badute, promozio hau "Komisiorik Gabeko Online Kontua" eta "Aqua Zordunketa Txartela" kontratatzeri lotuta egongo da, "Gazteentzako Online Kontua" kanpo geratuko delarik.
 - Txartela aktibatzea.
 - BBVA txartelarekin erosketak bat (1) egitea, 15,00 €-koa edo gehiagokoa. Aipatutako erosketaren 15,00 €-ko zenbateko hori erosketak bakar batena (1) izango da, ez da izango "BBVA Besoetako" gisa BBVAren txartelarekin egin ditzakeen hainbat erosketen gehiketa;

Zure lagunek "BBVA Besoetako" gisa hogeita hamar (30) egun naturaleko gehieneko epea izango dute, kontratua sinatzen denetik hasita, BBVAk kontua kontratatu eta alta emateko eskatuko dion informazioa eta dokumentazioa bidaltzeko eta, horrenbestez, hura indarrean jartzeko. Epe hori igarotakoan BBVAko kontua martxan ez badago, eskatutako informazioa eta dokumentazioa bidali ez delako ezin izan zaiolako alta eman, promozioa bertan behera geratuko da "BBVA Besoetako" diren zure lagunentzat.

Behin promoziora atxikita, "BBVA Besoetakoek" gehienez hiru (3) hilabeteko epea izango dute euren BBVA txartelarekin 15,00 €-ko edo gehiagoko zenbatekoa duen erosketak bat egiteko. Epe horretan ez bada halako erosketarik egiten, promozioa ezeztatua izango da "BBVA Besoetako" diren lagunentzat.

"BBVA Besoetako" gisa jasotako gonbidapen, burututako atxikipen eta likidatutako Sari bakoitzak ez du loturarik izango "BBVA Aitabitxiak" sortzen eta bidaltzen dituen beste gonbidapenekin.

"BBVA Besoetako" diren zure lagunek promozio honen saria jasoko dute zuk, euren "BBVA Aitabitxi" gisa, partekatzen diezun promozio-kode pertsonalizatu balioidun baten bidez BBVAn bezero izateko alta prozesua burutzen dutenean, betiere gehienez ezarritako "erabilera" kopuruaren barruan baldin badago, 6. klausulan azaltzen den moduan, eta, horrez gain, promozioaren lege-oinarrietan zehazturik sinatu izan diren betekizunak betetzen baldin badituzte. Hori guztiori, zuk "BBVA Aitabitxi" gisa gehienez jaso ditzakezun sari kopurua gainditu izana edo lege-oinarri hauek "BBVA Aitabitxi" izateko eskatzen diren baldintzak betetzeari uzten diozula alde batera utzita.

8. Zer sari jasoko dute zure lagunek "BBVA Besoetako" gisa eta zuk "BBVA Aitabitxi" gisa?

Zuk eta zure lagunek "BBVA Besoetako" eta "BBVA Aitabitxi" gisa parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte, honako hau jasoko duzue, hurrenez hurren, "Sari" modura:

- "BBVA Aitabitxia" gisa, gehienez hirurehun 35,00 €-ko sari bat jaso ahalko duzue lege-oinarri hauek zehazten diren baldintza guztiak eta bakoitza betetzen duten "BBVA Besoetako" bakoitzeko, eta gehienez ere 10 BBVA Besoetako eduki daitezke, gehienez 350,00 € garbiko zenbatekoarekin.
- Zure "BBVA Besoetako" lagunek (besoetako bakoitzak) 15,00 € garbi (15,00 € gordin) jasoko dute, betiere promozio-kode pertsonalizatu hori gehienez ezarritako "erabilera" kopuruaren barruan baldin badago, 6. klausulan azaltzen den moduan.

Lege-oinarrietan ezarritako baldintzetan hamar (10) "BBVA Besoetako" baino gehiagok parte hartzeak eta haiek betetzeak ez dizu eskubiderik sortuko "BBVA Aitabitxia" gisa lege-oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten BBVA Besoetako adina sari jasotzeko.

Sariaren diru-sarrera lotuta egongo da "BBVA Aitabitxiak" eta "BBVA Besoetakoak" lege-oinarrietan aurreikusitako baldintzak betetzeari.

BBVAK "BBVA Aitabitxiaren" titulartasuneko kontuan eta "BBVA Besoetakoaren" titulartasuneko kontuan sartuko du sariaren diru-sarrera, lege-oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, betiere "BBVA Besoetakoak" BBVA txartelarekin 15,00 € edo gehiagoko lehen erosketa egiten denetik gutxienez 45 eguneko eta gehienez sei (6) hilabeteko igaro ondoren.

Saria ezingo da aldatu, bestelakotu edo konpentsatu "BBVA Aitabitxiak" edo "BBVA Besoetakoak" eskatuta. Sariari uko egiten bazaio, ez da besterik eskainiko horren orde.

Parte hartzaileak ez balego, BBVAK eman gabe utzi ahal izango du promozioa.

9. Nola jakinarazten da saria?

Hobaria jakinaraziko da "BBVA Besoetakoak" bere txartelarekin 15,00 € edo gehiagoko lehen erosketa egiten duenetik kontatzen hasi eta gehienez ere sei (6) hilabeteko epean, eta "BBVA Aitabitxiari" eta "BBVA Besoetakoari" biei jakinaraziko zaie.

Hobariaren zenbatekoa kontuan sartuz egingo da, "Merkataritza-promozioaren Hobaria" kontzeptuarekin

10. Zer gertatzen da Promozioaren baldintzak bete ezean?

"BBVA Aitabitxia" edo "BBVA Besoetakoak" gisa ez baduzue betetzen lege-oinarri hauetan ezarritako edozein baldintza, promozioa ezeztatuz geratuko da horiek betetzen ez dituen parte-hartzailearentzat.

"BBVA Aitabitxiak" ez baditu baldintzak betetzen eta saria jaso izan badu, hori itzuli egin beharko du. BBVAK sariarengatik emandako zenbatekoa kargatuko du horren diru-sarrera egindako kontuan.

Promozioaren lege-oinarriak betetzen ez direnean, promozioa ezeztatuko zaio betetzen ez dituen parte-hartzaileari, nahiz eta gerora baldintzak betetzen hasi.

11. "BBVA Aitabitxi" gisa, nola onar ditzakezue lege-oinarriak?

"BBVA Aitabitxi" gisa, lege-oinarri hauek onartuta, horiekin ados zaudela adierazten da, eta ontzat ematen da BBVAren irizpidea haiek interpretatzean egon daitekeen edozein gatazka ebazteko.

BBVAK edozein parte-hartzaile kanporatzeko eskubidea du promozioa manipulatzeko badu, manipulatzeko saiatzeko bada edo lege-oinarri hauetako edozein zehaztapen edo baldintza urratzen badu.

BBVAK behar dituen erabakiak hartu ahal izango ditu promozioak dirauen bitartean sortzen diren gatazkek eta eztabaidak ebazteko, baldin eta erabaki horiek ez badituzte bidegabe kaltetzen parte-hartzaileak eta ekitatezkoak badira.

Aplikagarriak diren aurreko parte-hartze baldintzak edo lege-oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak "BBVA Aitabitxi" gisa betetzen ez badituzu, ez duzu eskubiderik izango oinarrietan ezarritako baldintzetan saria jasotzeko.

12. Zer gertatzen da iruzurrik bada?

BBVAK edo profesionalki promoziora lotuta dagoen edozein erakunde arazoren bat hautematen badu edo susmatzen badu partaide batek galarazi egiten duela horren ohiko garapena, partaide hori kanporatu ahal du alde bakarrez. Xede horietarako, BBVAK beharrezko euskarri teknologikoak prestatu ditu, saria legez kanpo lortzeko parte hartzea aldatu nahi duen iruzurrezko, ohiz kanpoko edo doluzko jokaerarik bada hauteman dadin. Hortaz, BBVAK beretzat gordetzen du edozein parte-hartzaile erregistrotik ezabatzeko eskubidea, erakutsi badu edo susmatzen bada deskribatutakoaren arabera arauz kanpoko jokaera bat duela.

Iruzurrezko, ezohiko edo doluzko jarduketatzat hartuko da "BBVA Aitabitxia" erabiltzaileak promozio-kode pertsonalizatua modu irekian partekatzen duenean foroetan, sare sozialetan edo bere lagunen inguruetik kanpo dagoen zabalpenerako edozein bitartekoetan.

13. Zein da erreklamazio aldia?

Promozioaren erreklamazio aldia Indarraldia amaitu eta hamabi (12) hilabete igarotakoan amaituko da.

14. Zer tratamendu emango dio BBVAk izaera pertsonaleko zure datuei?

Parte-hartzaileari jakinarazten zaio promozio honetan parte hartzean emandako datu pertsonalak, hobariaren onuradun gisa emandakoak barne, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria S.A. (egoitza soziala: San Nikolas plaza 4, 48005, Bilbo) tratatuko dituela, promozioaren antolaketa, kontrola eta jarraipena burutu eta oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera saria ematea kudeatzeko helburuarekin.

Zure datu pertsonalak datu pertsonalen babesari eta informazioaren gizarteko zerbitzuei buruzko araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera tratatzen dira, eta behar diren neurri teknikoak, antolamenduzkoak eta segurtasunekoak gordetzen dira haien konfidentziasuna bermatzeko eta haiek aldatzea, galtzea eta baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea saihesteko.

BBVAk honako hau jakinarazten dio "BBVA Aitabitxia" erabiltzaileari:

- Datu pertsonalak kontratu-harremanaren indarraldia bitartean gordeko dira. Behin hori amaitzen denean, blokeatuta geratuko dira legezko preskripzioek agintzen duten epean, oro har hamar urtez. Legezko preskripzio-epeak igarotzen direnean, datuak suntsitu egingo dira.
- Datu pertsonalak tratatzea ahalbidetzen digun oinarri juridikoa zuk ematen diguzun baimena da oinarri hauek onartzean promozio honetan parte hartzeko.
- Zure datu pertsonalak ez dira hirugarrenei jakinaraziko, lege batek behartu edo horretarako onarpena jaso ezean.
- "BBVA Aitabitxia" doan erabili ahal izango ditu datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta eramangarritasunerako eskubideak, idazki bat igorri derechosprotecciondatos@grupobbva.es helbide elektronikora. Eskubide horien gauzatzeak ez du atzeraeraginezko ondoriozko izango. Promozio honen kudeaketarako behar diren datuak ezabatuz gero, baja hartuko da automatikoki Sustapenean.
- "BBVA Aitabitxia" erabiltzaileak uste badu bere datu pertsonalak ez direla araudiaren arabera tratatu, BBVA Taldearen Datu Pertsonalak Babesteko Ordezkariarekin jar daiteke harremanetan, dpogrupobbva@bbva.com helbidean. Dena dela, erreklamazio bat aurkeztu ahalko du Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren (www.agpd.es) aurrean.

15. Zer zerga du sariak?

"BBVA Aitabitxia" zein "BBVA Besoetakoa" erabiltzaileek zerga ondorioak izan ditzakete hobariaren zenbatekoak; hori dela eta, kontuan izan beharko da errenta-aitorpena egiterakoan.

Zalantzarik izanez gero, kontsultatu zeure zerga-aholkulariarekin.

16. Zein da BBVAren erantzukizuna promozio honetan?

BBVAk ez du bere gain erantzukizunik hartzen promozioan parte hartzeari eragin diezaioketen galeren, narriaduren, lapurreten, atzerapenen edo hirugarrenei edo Interneti egotz dakiekeen beste edozein inguruabarren gainean.

BBVAk beretzat gordetzen du edozein parte-hartze edo parte-hartzaile kanporatzeko eskubidea, promozioan behar ez bezalako manipulazioa egiten ari denaren susmoak baldin baditu.

Era berean, BBVAk ez du inolako erantzukizunik izango, hartutako segurtasun-neurriak gorabehera, parte-hartzaileek zerbitzuak eta edukiak behar ez bezala erabiltzeagatik sor daitezkeen edozein motatako kalte-galerengatik, eta, bereziki, nahiz eta ez modu eskusiboan, erabiltzaile batek egindako edozein komunikaziotan hirugarren baten nortasuna ordezteagatik sor daitezkeen era guztietako kalte-galerengatik.

BBVAk, halaber, ez du bere gain erantzukizunik hartzen promozio-kode pertsonalizatua era masiboan eta iruzurrezkoan bidaltzearen ondorioz sor daitezkeen era guztietako kalte-galeren gainean, ez eta BBVAko bezero izateko interesa izanik



"BBVA Aitabitxia" erabiltzailearen lagunengandik kanpo sortutako spam kolektiboaren (foroetan, sare sozialetan eta zabalpen masiboko bitartekoetan argitaratzea) ondorioz denean ere.

BBVAk ahalmena du lege-oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein egoera ebazteko.

Onartu egiten duzu BBVAk geroratu, laburtu, atzeratu, aldatu, ezeztatu edo eten egin dezakeela promozioa, bere kontrolarik at dauden ezinbesteko arrazoiak direla eta; BBVAk, bere aldetik, gorabehera horretaz zuri lehenbailehen jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

Lege-oinarri hauetako edozein klausula baliogabetzat jotzen bada, indarrean jarraituko dute horrek eragiten ez dien gainerako klausulek.

17. Legeria eta forua

Edozein desadostasunerako, Espainiako legeria aplikatuko da bezeroaren auzitegi eta epaitegietan.